

LAUAXETAREN "MAITALE KUTUNA" OLERKIA

*Iñotz ikusi hako maitale kutuna
Neure opa samurrok laztandute dabe.
Beti gelgarriz dargist bijotzeko iluna,
Eta bere larrosak usainduten nabe.*

*Zerutar egak ditu maitasun zaltak;
Lurrera baxen sarri so-dagi ortzira.
Bere leuntasun ziar mosu sutsubenak
Espan ganian, otoi bijurtutzen dira.*

*Garbitasun usaña txakijan dixuri,
eta lo-dagonian ametsezko irrijak
Aboko larrosetan dagerkoz urduri.
Aiztatzat alai dartu zelaiko lilijak.*

*Neskattil ori nor dan ez dazau bijotzak;
Baña bera dan ona, beran dan liraña!
Begi oneik ez arren, bai-dakus ametsak.
Erean dazaukijot bekoki bikaña.*

*Sarri billauko neban bixitza bidian
Ta edertzat aitortu beraren gorputza,
Nok baña dasayoke begijen aurrian.
-Maite audana, ete az, neure neskutza?*

*Maitasun onek Goiko Jaunagan ditxaro,
Berak axian bidez lilitxu gustijak
Udabarri aldijan dalkartuz emaro.
Berak lotuko ditu maitasun lokijak.*

*Indar ixilkor batek batzen dauz goguak;
Itzak loitzen ditubez maitasun gurenak.
Barre alayak ezik, barruko malkuak,
zale oneintzat dira antzikur gardenak*

*Maitaliak ixanik alkartuko gara.
Jolas aldijan ezik otoyen orduban,
Eguzkira ezpada, gabeko illazkara:
Noiz'ak itxi Jainkuan izpizko eskuban.*

*Aldi alaitsu ori jadetsi artian
Neure ezkongai bailiran neskatil danari
Begiratzen dauziet dagidan bidian.
Neska polit bakotxan zakust ameslari.*

*Bestiak zeure ederra goratuten dabe,
Eurentzat gelgarrijak soin orren pitxijak.
Baña zeure zalian indartuten nabe
Begi polit samurren leuntasun izpijak*

*Zerutarrak baitira geure maitasunak,
Eta leikide batek eztauz lausotuko.
Oraindik eztauz loitu gurari lioxunak
Eta gorputz irritsak eztauz banatuko.*

*Ikus eziña zara ezkongai neskutza!
Baña, arren, entzun neure maitasunan naya:
Edurra baxen garbi trauki gorputza,
Ixañ zaitte zitoriz gotzon baten gaya.*

*Ixañ zaitte, oi neure neskatil argija!
Maitatzen dodan amatxu baxen leguna,
Leituten dodan alaba baxen garbija.
Ori litzake neure gogoko zoruna.*

*Samurtasuna landu gogo orren altzuan,
Urrumarako zara ba usoen antzera.
Ondo zaindu zaidazan oñaze orduban
Olderik naniko dauko bijotzak ostera.*

*Espan orreintzat daukoz mosu samurrenak
Samin orreintzat barriz, maitasun eztija.
Eta txori politen abesti leunenak
Zeugana eldu daiten luaro gurija.*

*Zeu maitatzeko nazan bijotz samurduna!
Siaska ertzan datzan amatxu lakua.
Gorde zaidazan, barriz, jayo nintzan luna!
Euzko seme lerdena, bildur gabekua...*

*Zeugan pentzaten nabil Jaunaren bidian,
Eta lokatz artian egaz dagit azkar.
Andra baten oroya naiko da hurrean
Garbi iraun dagiguntzat etsai orok ziar.*

*Oi, neure bijotzeko ezkongai gardena!
Beti, arren, aditu maitati ortzira.
Zeugan mosuba baxen kutun dot arrena:
Andrak ederren dira zerurantz begira!*

Badakigu 1930ean Aitzolek Errenterian antolatutako lehiaketan Lauaxetaren olerki honek irabazi zuela saria. Lehengo lehiaketa zen eta txapelketa horren inguruan orduko olerkari hoberenak bildu ziren. Hain zuzen ere orduko olerkari horiei 30. urteko belaunaldia deritzagu.

Egia esan "Maitale kutuna" ez da olerki oso ona eta inola ere ez Lauaxetaren onena. Olerkia aztertu ondoren garbiago geldituko dira beraren merituak eta zergatik irabazi zuen txapela.

Honatz gain-gaineko ohar batzuk.

Metrika.

Olerkiak 18 ahapaldi ditu. Lauko handiak dira. Hamairu silabako bertsoak: 7/6. Serventesioak: ABAB.

Ez ahaztu, ordea, 13 silabako bertsoak, 7/6 direnean, zortziko txikiak egin litezkeela. Mugaz beste aldean, batez ere, "Gernikako arbola" eta beste zortziko txikiak, 13 silabako laukoetan biltzen dituzte.

Serventesioak Gongorak erabili zituen Maria Hurtadori egindako poesian: "Háganme si muriere la mortaja verde".

Serventesioa sarri erabili zuten modernistek.

"Maitale kutunaren" errima oso aberatsa da, bertsolariekin berdinduz gero. Horretarako aditz trinkoek ere nahiko laguntzen diote.

Gaia

Tituluak isotopia nagusia adierazten du: maitasuna.

Behin eta berriz agertzen diren klasemek osatzen dute isotopia. Irakurgaiari batasuna ematen diote. Klasemak diskurtsoan behin eta berriz agertzen diren semak dira. Sema ezaugarri txikiak da adierazpen alorrean.

(GREIMAS, *Diccionario de semiótica*).

"In einem geschlossenen Textabschnitt ordnen sich die rekurrierenden Klasseme zu einer einheitlichen Gesamtstruktur zueinander. Der Text ist nur die Entfaltung dieser Struktur, die wir Isotopi (gleiche Ebene) nennen wollen" (Jürgen LINK: *Literaturwissenschaftliche Grundbegriffe*, 73 or.)

Lauaxeta da euskal olerkigintzan maitasunaz hedatuki arduratzen den lehendabiziko olerkaria. Detxepare izan zuen aurrelari.

Oroit gaitezen titulua olerkietan eskuarki erreferentzi gune nagusia dela. Erreferentzia zuzenik ez duten izenorde edo perpausak tituluarekin uler daitezke.

Batzuetan titulua gaiarekin jazargoan egon liteke, ironiaz edo; baina orduan ere titulua erreferentzi gunea izan liteke.

Olerkia komunikabide sistiman

Nor mintzo den eta nori: emakumearen maitasuna sentitze-ko gauza den gizonezko bat. Lauaxeta bera, nolabait ere. Honelaxe dio Aitzolek:

“Coppée eta Heredia ezik parnasotarrak loitsu eta ziñisgabeak dagerzkigu; oiek irakaslaritzat euki arren, Urkiaga garden, txukun eta ziñiskoi, ordea” (V. Bibliografia *Euskal Olerkiak* 16 or.)

Neskatxa bati mintzatzen zaio.

Zer dio?: Berak maite duen neskatxa nolakoa den eta emakume horrek sortarazten dizkion sentimendu, ideiak eta bizitzari buruzko jarrerak.

Zer dela eta mintzo da? Ez du esaten. Ez dakigu gertakizun berezi batek bultzatu ote zuen gauzok esatera.

Badirudi aspaldidanik bihotzean daraman ametsa eta irrika lehertu zaiola olerki honetan.

Egitura

Ahapaldiak ongi jasoak daude, parnasiarrek maite zuten bezala.

Olerkiak ez du inongo gertaketarik kontaktzen. Ez du, beraz, kontakizunen egiturarik, bertsolarien bertsoek askotan edukitzen duten bezala.

Egitura oso sinplea du, bikoitza.

a. Neskatala nolakoa den edo izan beharko litzatekeen adierazten digun maila.

b. Hitzegilearen neskatilarekiko harremanak adierazten dizkigun maila.

Zenbait ahapalditan bi mailak batera aurki daitezke (1,4,12).

2 eta 3 ahapaldiak neskakoa den esateko huts-hutsak dira. Ahapaldi gehienak olerkariak harekiko duen ikuspegi eta irrika adierazteko dira (5,6,8,9,10,11,13,14,15,16,17,18).

Ni/zu egituran oinarriturik dago olerkia, askoz pertsonalago, neskakaren deskribapena hirugarren pertsonan egingo balitz baino.

Nolako den Maitale kutuna

Testua deskodifikatzeko giltzarik handienak aurkituko ditugu.

Neskatilaren ezaugarri nagusiak hiru alor semantiko nagusitan biltzen dira:

- A. Ez ikusia edo ez ezaguna da. Klasema: ez ezaguna.
 - B. Neskakila garbia da. Klasema : garbitasuna.
 - B. Jainkozalea da. Klasema: jainkozaletasuna.
- B eta C klasemak batera artxiklasema osatzen dute: zintzotasuna

A. **Neskakila ez ezaguna da**: misterioa eta iluna sinbolismoaren eta erromantizismoaren ezaugarriak dira. Sugererac'est l'art. Neskakila bihotzaren idealizazioa da.

ifioiz ikusi bako maitale kutuna 1,1

Neskakila ori nor dan ez dazau bijotzak 4,1

maite audana, ete az, neure neskutza! 5,4

Ikus eziña zara ezkongai neskutza! 12,1

Mintzalaria neskakila idealizatuarekin ari dela beste alor semantikoa ere nabaritzen da: "ametsa" adierazten den hitzez. Mintzalariak bere subjektibotasuna adierazten du:

Eta lo-dagonian ametsezko irrijak 3,2

Begi oneik ez arren, bai dakus ametsak 4,3

Neska polit bakotxan zakust ameslari 9,4 eta 3,2

Ezin ahantzi esaera zaharra. "Ametsak askotan gure grinen kolorea dute".

Ez ezagunaren bidez poetak neskatxaren idealizazioa eta harekiko harreman poetiko-platoniko-lirikoak hobeki azal ditzake.

B. Garbitasuna

Zuzen eta zeharka miresten du garbitasuna mintzatzaileak bere bihotzeko, ametsezko neskatila horrengan.

Lexema: *garbia*

Garbitasun usaña txakijan dixuri 3,1

garbi iraun daginguntzat etsai orok ziar 17,4

Edurra baxen garbi irauki gorputza 12,3

leituten dodan alaba baxen garbija 13,3

Garbiaren sinonimo bat ere ikusten dugu: *garden*

zale oneintzat dira antzikur gardenak 7,4

Oi, neure bijotzeko ezkongai gardena! 18,1

Kategoria semiko berdintsua adierazten du olerkariak antonimiaren bidez, hots, lohikeria arbuiauz.

Oraindik eztauz loitu gurari lixunak 11,3

eta gorputz irrisak eztauz banatuko 11,4

eta leikide batek eztauz lausotuko 11,2

Neskatxa garbiaren ideiak olerkariari ere laguntzen dio, zikinik gabe gelditzeko:

Lokatz artian egaz dagit azkar 17,2

Neskatilari bere ama bezalakoa izan dadin eskatzen dio:

Maitatzen dodan amatxu baxen leguna 13,2

"Argia" ere aurkitzen dugu olerki honetan, substantibo eta aditz funtzioan. *Argia* sememak zuzen-zuzen, hots, bere muin edo nukleoan ilunaren kontrako semak baditu ere, garbitasun klasemari oso ongi lotzen zaio. Euskaraz "argi eta garbi" esan ohi da.

Begi gelgarriz dargist bijotzeko iluna 1,3
 Ixan zaite, oi neure neskatil argija! 13,1

Garai hartan ezin ona izan, garbia izan gabe
 baña bera dan ona... 4,2

Garbia zen neskatxa birjina zen, neskutza (Neska-hutsa).
 Maite audana, ete az, neure neskutza? 5,4
 Ikus eziña zara ezkongai neskutza! 12,1

Ezin falta erlijioan eta artean neskatxa garbien sinboloa, liria edo "zitori", *Lauaxetaren lexikoan*.

Artean Sandro Botticeli-rengandik hasita ("Birjina eta Haurra aingeru kantariekin", 1477 ingurukoa, 7 lili agertzen dira) eta hurrengo Deikunde laukoetan lilia maiz agertzen da, Donamaria birjina izango dela adierazteko. Gauza berdintsua esan liteke Hugo van der Goes-en "Artzaien adorazioa"z (1440 inguruan).

Gabriel Goiaingeruak ere maiz eskuan lilia dauka. San Josek ere usu izan ohi du lilia, Jesusen jaiotza nolakoa izango den garbi uzteko.

ixan zaite zitoriz gotzon baten gaya 12,4

Eta jakina, garbi inor bazen, aingeruak ziren garbi:
 begi gelgarriz 1,3
 gotzon baten gaya 12,4

C Jainkozaletasuna

Mintzatzaileak neskatxa Jainko zalea izan dadin nahi du. Behin eta herriz dio bere maitasuna goikoa dela.

Maitasun onek Goiko Jaunagan ditxaro 6,1
 Zeugan pentzaten nabil Jaunaren bidian 17,1

Noiz elkartuko den bere maiteñoarekin ere Jaunaren borondatean uzten du:

noiz ak itxi Jainkuan izpizko eskuban 8,4

Estekatu ere, bere maitasuna ez dago hemengo lurreko loturekin estekatua. Goi mailakoa da:

Zerutarrak baitira gure maitasunak 11,1
Itzak loitzen ditubez maitasun gurenak 7,2
Zerutar egak ditu maitasun zaliak 2,1

Munduko likitsaren gainetik dabilen maitasuna da, hegoak dituena:

Zerutar egak ditu maitasun zaliak 2,1
Eta lokatz artian egaz dagit azkar 17,2

Hegaldatze hori zerurantz bakarrik izan daiteke:

Lurrera baxen sarri so-dagi ortzira 2,2
Betí, arren, aditu maitati ortzira 18,2

Olerkiak bere klimax azken lerroan iristen du:

Andrak ederren dira zerurantz begira! 18,4

Ezagun da bertsolariak ere azkenerako uzten dutela bertsoaren alderdirik jakingarriena edo pipertsuena.

Ez da bertsolarien teknika bakarrik. Sonetoak ere gogoetarik mamitsuena azkenean ezartzen du.

Munduko likiskerietatik begiratzeko eta zerura igotzeko, berriaz, kristauarentzat otoitza biderik artezena:

Mosu sutsubenak... otoi bijurtuten dira 2,3-4
Zeugan mosuba baxen kutun dot arrena 18,3

Neskatxaren alderdi fisikoa

Orain arte neskatxaren alderdi espiritualak dira azpimarratuak. Neskatxa giristino zintzoa da. Horretan datza emakume baten alderdi nagusia.

Gorputzez neskatxa nolakoa den jakiteko zertzelada gutxi ematen digu, ez ezaguna eta ez ikusia denez gero. Topikoak edo zehaztasun orokorrak dira:

liraña 4,2
 ta edertzat aitortu beraren gorputza 5,2
 bekoki bikaña 4,4
 begi gelgarriak 1,3
 begi poñit samurrak 10,4

Mintzatzaileak bere maitearekin duen harremana aski platonikoa da, kristau jokabidezkoa, ametsezko mundukoa, iritsi ezina.

Laztandu ez du artez egiten, bere gogoaz baizik:
 neure opa samurrok laztanduten dabe 1,2
 Egia da musu ematen diola
 Espan orreintzat daukoz mosu samurrenak 15,1
 baiña musuak otoitzari lotuak doaz
 Zeugan mosuba baxen kutun dot arrena 18,3
 Bere leuntasun ziar mosu sutsubenak 2,3
 espan ganian, otoi bijurtuten dira. 2,4

Iturriak

Aitzolek ongi zioen bezala, olerki honen gaia aspaldikoa, betikoa da (*Eusko Olerkiak*, 1930, 16 or.) . Gero zehaztu egiten du eragina eta Félix de Avers-en poesia aipatzen du, "Mon âme a son secret".

"Hélas! J'aurai passé près d'elle inaperçu,
 Toujours à ses cotés, et pourtant solitaire,
 Et j'aurai jusqu'au bout fait mon temps sur la terre,
 N'osant rien demander et n'ayant rien reçu".

Eta Verlaine'k "Mon rêve étrange et pénétrant
 D'une femme inconnue, et que j'aime..."

Gabriel y Galanen olerki bat ere badakar:

"Donde quiera que estás, mujer hermosa,
 predestinada esposa,

que merezcas aquí posar tu planta..
 Ven, casta virgen, al reclamo amigo
 de una alma de hombre que te espera ansiosa,
 Porque presente que vendrá contigo
 el pudor de la virgen candorosa,
 el casto amor de la leal esposa,
 la gravedad de la mujer cristiana”.

Nik neuk esango nuke, Lauaxetak ez zuela zuzen olerki horietatik inspirazioa jaso. Olerki honetan Lauaxetak jaulkitzen dituen ideiak eta sentimenduak erabat arruntak dira, orduko Euskal Herrian hedaturik zeudenak. Gehienak topikoak dira.

Figura poetikoak

Topiko asko aurkitu arren, Lauaxetak olerkia figura poetikoz jantzi du, lirika mailara jasoz.

Sinestesiak aurkitzen ditugu:

Neure opa samurrok laztanduten dabe 1,2

Luaro gurija 15,4

Maitasuna lausotu 11,2

Olerkia metaforaz jantzia dago. Hementxe batzuk:

Jayo nintzan luna 16,4

mosu sutsubenak /espan ganian, otoi bijurtuten dira
 2,3-4

irrijak aboko larrosetan dagerkoz urduri 3,3-4

berak lotuko ditu maitasun lokijak 6,4

lokatz artian egaz dagit azkar 17,2

bixitxa bidean 5,1

barruko malkuak antzikur gardenak 7,3-4

soin orren pitxijak 10,2

ixan zaite zitoriz gotzon baten gaya 12,4

Konparaketa zuzenak ere bat baino gehiago dira. Gehienak berritasun gabekoak.

Edurra baxen garbi 12,3
Amatxu baxen leguna 13,2 amatxu lakua 16,2
leituten dodan alaba baxen garbija 13,3
urumarako zara ba usoen antzera 14,2
Zeugan mosuba baxen kutun dot arrena

Ikusten denez, konparaketek ez dute berritasun handirik ekartzen. Honetan Lizardi-tik nahiko urruti gaude. Lizardik esaten duena oso pertsonala da, bere baitatik aterea. Topikoe-tatik ihes egiten du.

Izenlagunak

Olerkietan izenlagunak esaldien apaingarriak dira, harri bi-txiak bezala. Guztira, izenlagunen aberastasuna da "Maitale kutuna"n.

Izenlagun gehienek subjektibotasun konnotazioa dute. Roman Jakobson-ekin batera emoziozko izenlagunak dei ditza-kegu:

"vise a une expression directe de l'attitude du sujet à l'égard de ce dont il parle" (Ikus bibliografia).

Kutuna, samurrok, gelgarriz, zerutar, sutsubenak, ametsez-ko, urduri, ixilkor, gurenak, alayak, lixunak, garbi, argija, leu-nenak, eztija, gurija, beldurgabekua, maitati: izenlagunok mintzatzailearen ustea, beraren barneko iritzia adierazten di-tuzte.

Horrela olerkariak barne giroa sortzen du, lirismo mailara jasotzen da, bertsolaritzaren objetibotasunetik jasotzen da, pentsamendu eta gogoetan murgiltzen da.

Bertsolariek izenlagun gutxi erabiltzen dituzte eta gutxi ho-riek ia beti objektiboak dira. Irakurri emeki, adibidez, "Do-mingo Kanpana": izenlagun bakarra "azpikoa" duzu. Edo Txi-rritaren "Frantses euskalduna": "errezak", "amorosoak", beste-rik ez.

Perpausen Azterketa

Gehienetan perpausak bakunak dira eta enuntziatiboak. Bai eta agintzekoak ere (12,13,14).

Ahapaldirik korapilotsuenak 8a eta 9a dira, azken hau batez ere. Erlatibozkoak nahiko dira. Kopula gutxi darabil. Neskatarren deskribapena askoz kopula gehiagorekin egiteko arriskua zegoen.

Aditz asko mugimenduzkoak dira. Neskata nolakoa den esateko ere mugimenduzkoak aukera ditu: dargist, so-dagi...

Joskera normala da, bihurketa gutxirekin.

Euskara

Olerkariak berrira jotzen du, esaldiaren maila guztietan. Lauaxetaren berritasunak batzuetan garbikeriara jotzen du. Orduko giroa zen. Irakurri ezazu Aitzolen sarrera (bibliografia: Euskal Olerkiak) eta zail izango zaizu latinaren usaina duen hitzik aurkitzen. Sabino Aranaren eta Azkueren eragina handia zen idazleen artean.

Garbitasun joera hori lexikoan ageritzen da: gelgari, txakija, neskutza, antzikur, zitoriz, gotzon, luna eta aditzetan ere.

Maiz Eleizalde-ren ildotik jotzen du, aditz trinkoa herriak erabiltzen ez duen moldetan erabiliz: dargist, dixuri, dagerkoz, dalkartuz, zakust...

Guztira olerkia ez da ulerterraza, euskaldun ikasiarentzat ere.

Dena dela, hizkeran aurrerantz jotzen du Lauaxetak olerki honetan. Hemen ere eguneroko hizketatik jasotzen da. Lirikara moldatzen den hizkera sortzen saiatu da.

Batzuetan garbizalekerian erori bada ere, hortxe dago aha-legina, eta noiz behinka gora altxatu dela ere esan liteke, modernisten hizkeraren oihartzuna entzuten dugularik.

Lauaxeta poeta zen eta poeta guztiak bezala esanahi joria duten hitzen ("meaningful words") bila dabil.

Zuzenbidez zioen Ezra Pound'ek goreneko literatura "simply language charged with meaning to the utmost possible degree" zela, hizkuntza sinplea esanahirik bete-beteenarekin.

Azken iritzia

Olerki hau ez da Lauaxetaren onenetakoa. Halere Errenterriako txapelketa irabazi zuen, txapelketa horretan besteak beste Orixe eta Lizardi agertu arren. Epaimahaikideen ustez han agertu zirenak baino hobea zen, edo besteak bezain ona.

Txapela olerki honi ematea ez da mirestekoa. Neskatilaren deskribapena orduko neskatila idealizatuari zegokion: euskalduna, fededuna, zintzo eta garbia.

Olerki honetan informazio gehiegitxo da, alderdi poetikoaren kaltetan. Brooks-en hitzok gogoan hartzekoak dira:

"The basic problem of communication in poetry is, therefore, one of a totally different character from that involved in communication of matters of fact". (Ikus bibliog. 7 or.).

Poesiaren komunikazioak eta egiazko gertakariak kontatzeak ez dute elkarrekin zer ikusirik.

Olerkiak ez dakar berritasunik, kanpoko poesiarekin berdinduz gero. Halere, lehenbiziko aldiz euskal olerkien kondairan, neska bat gaitzat hartua ez ezik, haren izatea eta olerkariak harenganako sentitzen dituen sentimenduak zehazki agertuak ikusten ditugu. Hots, lehenbiziko aldiz neskatxarenganako irizpideak subjektibotasun-lirika alorrean agertzen zaizkigu.

Maitale kutuna, denera jota, urrats positiboa da 30 garren urte inguruko olerkariak euskal olerkia Europako mailara jasotzen egin duten ahaleginean.

Lauaxeta bera ez da olerkigintza bidean geldituko eta hurrengo urteetan olerki hobeak eskainiko dizkigu.

Bibliografia

- BROOKS, Cleanth & Robert PENN WARREN: *Understanding Poetry*, Henry Holt & Company, New York, 1978.
- CHAIMAN, Seymour: *The Language of Poetry*, University of Berkeley, 1978.
- Eusko olerkiak. Errenderiko Olerki Jaietarako eratu zan olerki gudara bidaldutakoenetatik autuak. Aitzol dar J'aren itzaurrea*, 1930, Euskaltzaleak, Gipuzkoa Aldundegiko jauregia, Donostia.
- CHEVALIER, Jean, Alain GHEERBRANT: *Dictionnaire des symboles- Mythes, rêves, coutumes, gestes, formes, figures, couleurs, nombres*, Robert Laffont, Jupiter, Paris 1982.
- CIRLOT, Juan-Eduardo: *Diccionario de símbolos*, Labor, Barcelona 1982.
- COLEMAN, Alice C. And John R. THEOBALD: *Introducing Poetry*. Holt, N.Y. 1985.
- FERGUSON, George: *Signs and Symbols in Christian Art*. Oxford University Press, 1985.
- JAKOBSON R. *Essais de linguistique generale*, Paris, Editions de Minuit, 1970, 214 or.
- LAUAXETA. Urkiaga tar Estepan. *Azalpenak (1931-1935). Aukeraketa eta itzaurrea*. Jon Kortazar. Labayru ikastegia.
- LAUAXETA. Urkiaga tar Estepan: *Bide barrifak. Nuevos rumbos*. Verdes, Bilbao, 1931.
- MAIN, C.F. *Poems*, Wadsworth Publishing Company, Belmont, California, 1983.
- LAUAXETA. Esteban Urkiaga: *Arrats beran*. Euskal Editoreen elkarte. Donostia, 1991.
- URKIAGA, Esteban. Lauaxeta: *Olerkiak*. Jon Kortazarren sarrera. Erein, 1985.

URKIAGA, Estepan, Lauaxeta: *Olerki guztiak*, Aita Santi Onaindiaren bilduma. Bizkaiko Foru Aldundia, 1985.

ZARATE, Mikel: *Euskal Literatura. Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak*. Leopoldo Zugaza, Durango, 1977.

Gotzon Garate